



MAHASTIEN EGOERA ARABAKO ERRIOXAN, IZOZTEAREN ONDOREN.
2017KO MAIATZAREN 17A

• Oro har, oineko ernamuinak oso ondo ari dira ernetzen. Adar motzen % 50 - % 90ek (lurzatiaren arabera) oineko ernamuina dute handitze fasetik E egoera fenologikora arte (hostoak zabalik) eta, gainera, haietako askotan mahats mordoaren marka bat ageri da, eta kasuren batean bi ere bai.

• Behin inausketa ziurtatu ondoren oineko ernamuinarekin, GARRANTZITSUA da udaberriko kimaketa egitea ahal bezain laster. Lurzati indartsuetako hainbat mahasti daude (batez ere enbor garaiak dituztenak, altitude ertain eta ertain-altuetan daudenak), non adar zupatzaile handi asko hazten ari diren. Horiek ahal bezain laster kendu behar dira, oso lehiakide gogorak baitira oineko ernamuintzat eta bigarren mailako berantiarragoentzat; izan ere, han beste 10 egunez egonez gero, eragingo dute oineko ernamuin eta bigarren mailako horiek mahatsik ez ekoiztea, edo oso gutxi ekoiztea. Horregatik, mahatsondo altuak dituzten lurzati indartu horietan egin behar da lehenbizi udaberriko kimaketa, gerta daitekeelako ekoizpenik handiena izan dezaketen lurzati horiek, azkenean, mahatsik gutxien ematea, gehiegizko lehia izatearen ondorioz.

Badirudi mahatsondoek pentsatu baino erreserba handiagoa dutela, eta oso ondo ari dira ernetzen oineko ernamuinak eta nahiko ondo bigarren mailakoak. Beraz, adar zupatzaile horiek kentzeari esker ekoizpen handiagoa izango da, eta ez da arriskuan jarriko 2018ko inausketa.

• Halaber, garrantzitsua da puntak ontzi itxuran mozteaz gogoratzea; izan ere, lurzatiaren heterogeneotasunak pentsaraz diezaguke ez dagoela altuera nahikorik, baina egiazki mahatsa duten ernamuinek luzera nahikoa izan, eta puntak moztu beharko dizkiegu udaberriko kimaketa egitearekin batera, ernamuin luzeago horiek galtzeak eragin bailezake mahasti batzuetan egon daitekeenaren % 33 ere galtzea (izoztu ez ziren lehenengo ernamuinak edo mahatsa dakarten adar zupatzaile oso goiztiarrak dira, batez ere). Nolanahi ere, adi ibili, puntak gehiegi edo irizpiderik gabe ez mozteko.

• Izoztutako ernamuin guztiak kendu ez diren eta kimu berriak sortzen ari diren tokietan denak kentzen bukatzea komeni da, ernetze fasea oro har ona ari baita izaten, eta oso kasu gutxi dira zeinetan kimu berri horietakoren bat beharrezkoa izan daitekeen inausketa eratzeko.

• Altitude ertain eta altuko eremuetan, ernamuinek oro har tamaina nahikoa dute aminoazido ekarpina egiteko, hostoak ongarritzeko, honako hauek aintzat hartzen saiatuz:

- Adi fitosanitariodun zer nahasketa erabiltzen diren: saihestu egin behar dira produktu horietako edozeinen (nitrogenoa dutenen) eta fosetil-al, metil tiofanato edo antzeko materia aktiboak dituztenen arteko nahasketak.

- Hostoetarako ekarkin bat botatzen denean, ontzian 100 litro uretarako gomendatutako produktu dosirik txikiena erabili beti. Esperientziak erakusten du oro har eraginkorragoa dela produktuaren guztirako kantitate berbera bi alditan botatzea,aldi bakarrean botatzea baino.

- Hostoen ongarritzea aprobetxatzeko unerik onena goizean goiz da, temperatura hotza eta hezetasuna handixeagoa denean.



- Behealdeko eremua eta ia % 100 izotzak hartu zituen eremu guztietako lurzatiak oraindik atzeratu samar daude hostoei ekarkin hori botatzeko.
Lurzati horietan 10 egun inguru itxaron beharko da.

MAHASTIZAINZA ETA ENOLOGIA ZERBITZUA, BASTIDAKO UPELTEGI ETA MAHASTIEKIN
LANKIDETZAN